

Beste alderdi onartze-eskaeran balioetsiko dira

Eskaera-hurrenkera nagusi izango da, baina nazioartekotze-diagnostikoa egiteko hurrengo hauek onetsiko dira:

- ▼ Enpresentzako ibilbidean, gehienez 50 enpresa.
- ▼ Elkarte eta fundazioentzako ibilbidean, gehienez 20 elkarre eta fundazio.

20 elkarre eta fundazioetara iristen ez bada, diagnostikoak egiteko enpresa gehiago sartzea balioetsiko da. Nolanahi ere, guztira gehienez 70 diagnostiko gauzatuko dira.

Aurreko oinarritzko baldintzak betetzeaz gain, programan onartzeko, enpresa, elkarre eta fundazioek 50 puntu edo gehiago lortu beharko dituzte ondorengo irizpide hauek batu ostean:

FAKTURAZIOA 15 PUNTU	▼ 0 – 60.000 EURO: 5 PUNTU. ▼ 60.000 – 100.000 EURO: 10 PUNTU. ▼ > 100.000 EURO: 15 PUNTU.	ATZERRIKO HIZKUNTZAK 10 PUNTU	▼ 1 HIZKUNTZA: 5 PUNTU. ▼ 2 HIZKUNTZA: 10 PUNTU.
		HURRENGO URTEETAN NAZIOARTEKOTZEKO INBERTSIOA 10 PUNTU	▼ < 5.000 €/urte: 0 puntu. ▼ 5.000 – 15.000 €/urte: 5 puntu. ▼ > 15.000 €/urte: 10 puntu.
MOTIBAZIOA/ PROIEKTUAN ITXAROPENAK 20 PUNTU	▼ Arrazoi sendoetan oinarritutako proposamena (merkatuko informazioa, baliabideak, esperientzia, potentziala, etab.): 10 puntu. ▼ SMART ezaugarriak dituzten helburuak (espezifikoa, neurgarria, irisgarria, errealista, denbora): 10 puntu	PRODUKTU/ ZERBITZUAK EUSKARAZ 5 PUNTU	▼ Nazioartekotzeko produktuak edo edukiak euskaraz: 5 puntu.
		BERDINTASUN POLITIKAK/PLANA 5 PUNTU	▼ Berdintasun politikak edo planak garatzea: 5 puntu.
NAZIOARTEKO NEGOZIO ESTRATEGIA/ IDEIA IZATEA 10 PUNTU	▼ Nazioarteko negozio-estrategia: 5 puntu. ▼ Nazioarteko esperientzia/esportazio erregularra: 5 puntu. ▼ Nazioarteko esperientzia/noizean behingo esportazioa: 3 puntu.	PROIEKTURAKO ARDURALDIAREN KONPROMISOA 10 PUNTU	▼ Zehaztu gabe: 0 puntu. ▼ 1 pertsona, denbora zehatza atxiki gabe: 5 puntu. ▼ 1 pertsona, denboraren >% 20: 10 puntu.